

**UPV/EHUko IKERTALDEETARAKO LAGUNTZEN
DEIALDIA
(2021)**



ATARIKOA

UPV/EHUren eginkizun funtsezkoa da ikerkuntza, ikerkuntza baita jakintza sortzeko tresna, irakaskuntzaren oinarria, komunitatearen aurrerapenerako baliabidea eta jakintza gizartera transferitzeko euskarria. Horrela, bada, unibertsitateak bere egiten du helburu garrantzitsuenetako bat izatea ikerketa zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoa garatzea, eta ikertzaileak prestatzea. Era berean, ikertaldeak sortu eta garatzea sustatzen du, eta kalitatea, diziplinartekotasuna eta nazioarteko bikaintasun sareetan txertatzea bultzatzen ditu, baita beste erakunde edo enpresa batzuekin talde mistoak eratzea ere.

Laguntza hauen bitartez, areago, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea osatzen duten gainerako eragileekiko lankidetzara eta unibertsitateko ikertaldeen indarra ere hobetu nahi dira, deialdi lehiakoragoetan parte har dezaten; hala nola, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako planaren programa ezberdinak, deialdi estatalak edo Europar Batasunaren deialdi ezberdinak.

UPV/EHUko Ikertaldeetarako laguntza deialdi honetan (2021), bi modalitate daude:

- I. modalitatea: Unibertsitateko Ikertaldeetarako laguntzak.
- II. modalitatea: UPV/EHUko Euskal Unibertsitate Sistemaren Ikertalde Finkatuentarako laguntzak; horiek jasoko dituzte aitortuak izanda ere, ez badute Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarik jasotzen 2021eko deialdian (hori 2021eko irailaren 7ko 2021/4826 Aginduan dago deskribatuta et 2021eko irailaren 21eko EHAAn dago argitaratuta).

Oro har, UPV/EHUren ikertaldeak aldi baterako besterik ez dira sortzen, epe ertainera, ikertalde bihurtzeko unitate osatu berriak baitira, Euskal Unibertsitate Sistemaren (hemendik aurrera EUS) Ikertalde Finkatuetan. Horrez gain, bi modalitateak elkarren artean bateraezinak dira; hau da, EUSeko Ikertalde Finkatuetarako Eusko Jaurlaritzaren laguntzetara aurkeztutako taldeek ezingo dute deialdi honen I. modalitatara aurkeztu. Hala ere, nahi badute, II. modalitatean aurkeztu ahal izango dira. Analogikoki, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen deialdian eskaeraren bat egin duten ikertzaileek ezin izango dute deialdi honen I. modalitatean parte hartu, eta soilik II. modalitatean parte hartu ahal izango dute, betiere Eusko Jaurlaritzaren laguntzen deialdian parte hartu zuen taldearekin egiten badute.

Era berean, deialdi honetan finantzaketa lortzen duten ikertaldeek gehienez ere UPV/EHUko beste ikertaldeetarako laguntza deialdi batera aurkeztu ahal izango dira.

Deialdi honetan aitortutako ikertaldeen indarraldia, bi modalitateetan, 4 urtekoa izango da: 2022tik 2025era. Gainera, guztira 2.628.000 € bideratuko dira laguntzetara. Lehenengo urtean zehar, helburu honetarako 900.000 € bideratuko dira eta finantzaketa 2019-2022 eperako Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako Bikaintasuneko Ikerkuntzarako Kontratu Programaren barruan dagoen kredituaren arabera egingo da. Zehazki, aipatutako kontratuaren "Egungo ikertaldeak lagundu, ikerkuntza artikulatzeko erreferentziatzko unitate gisa, nazioartean lehia daitezen" izeneko ekintzari esleitutako finantzaketari lotutako aurrekontu kredituaren arabera. Ondorengo urteen finantzaketa urteko aurrekontuetan dagokion kreditu eskuragarritasunaren arabera izango da. Deialdiaren finantzaketa osoa, gainera, handitu ahal izango da etorkizuneko aurrekontu eskuragarritasunen arabera.

Modalitate bakoitzari esleitutako kredituaren zenbatekoa ebaluazioan lortutako emaitzen arabera izango da.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean, IAE) erabaki du dirulaguntzak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

I. MODALITATEKO LAGUNTZAK: UNIBERTSITATEKO IKERTALDEAK

1. OINARRIA.- OBJEKTUA ETA XEDEA

Deialdi honen helburua ikerketa jarduerak erraztea eta bultzatzea da, bai eta UPV/EHUko ikertaldeek egindako ikerkuntzaren kalitate zientifikoa hobetzea ere, bost jakintza arloetan (zientzia, ingeniari eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte zientziak eta zientzia juridikoak, eta artea eta giza zientziak) ikerketak egiteko laguntza finantzarioak emanez.

Ikerkuntzarako ekintzen bidez, erdietsi nahi diren oinarritzko helburuak dira:

- a. Funtsezko ikerkuntza sustatu, jakintzaren maila handitzeko, bere horretan ondasuntzat jo nahi baita.
- b. Ikerketa estrategikoa sustatu, berrikuntza bultzatzeko, lehiakortasuna eta gizarte ongizatea areagotzeko elementua den aldetik.
- c. Ikerketa estrategikoa sustatu, berrikuntza bultzatzeko, lehiakortasuna eta gizarte ongizatea areagotzeko elementua den aldetik.
- d. Sortzen diren ikertaldeak sor daitezkeen bultzatzea; izan ere, gazteak direnez, ez dute lortu esparru lehiakorragoko deialdietan lehiatzeko behar den bikaintasun maila.

Goian adierazitako hitzaurrearen arabera, deialdi honen helburua bikaintasunezko ikerketa lanean arituko diren talde egonkorak sortzea da, gerora EUSeko Ikertalde Finkatueterako dei egiten duen deialdian lehia daitezkeen.

Deialdi honen modalitateak, hortaz, ikertalde bakoitzari emandako laguntza ekonomikoa kuantifikatu eta esleitzea du helburu, zeinek proposatzen duen hiru urteko jardun programa burutzeko eta, behin osatuta eta aldeko balioespena lortuz gero, UPV/EHUk aitortutako ikertalde bihurtzeko.

2. OINARRIA.- IKERTALDEEN EZAUGARRIAK

2.1. Ikertaldeak egiaztatu beharko du ikertzaileen arteko harremana egonkorra dela; nolabaiteko koherentzia erakutsiz eta proiektu eta argitalpen komunitan parte hartuz.

Aurreko paragrafoan ezarritako baldintza betetzetik salbuetsita ote dagoen aztertuko da, baldin eta ebaluaziora aurkezten den taldea esparru desberdinetatik heldu diren eta diziplinaz haraindikiko orientazioa duen misio komun batean lan egiteko bat egin duten taldeetatik sortu bada.

Ikertaldeak beste gune edo erakunderen bateko ikertzaileekin harremanak izan eta proiektu eta argitalpenak horiekin batera lantzen baditu, beste gune edo erakundeetako ikertzaileak ez dira ikertaldeko kide zat hartuko deialdi honetan parte hartzeko helburuetarako. Taldeari laguntza ekonomikoren bat esleitzekotan, hori soilik UPV/EHUren parte diren taldeko kideen zenbatekoaren arabera kalkulatu da.

2.2. Talde eskatzaileak egiaztatu beharko du azken bost urteetan finantzaketa jarraitua jaso duela. Epe horretan zehar jasotako finantzaketa osoaren, gutxien-gutxienez, % 25a UPV/EHUtik kanpoko iturburuetatik etorritako finantzaketari egokituko zaio.

Unibertsitatekoak ez diren beste ikertzaile batzuekin batera partekatutako proiektuei dagokienez, hauen ekarpena proportzionaltasunaz zenbatuko da taldean diren ikertzaileen kopuruarekiko. Finantzaketa da ikerketa jarduerak edo ikertzaileak kontratatze edozein motatako laguntza, lehiaketa bidezko deialdietan lortutakoak, bai eta eskatzaileek ikerketa jarduna egitea eragingo lukeen beste edozein laguntza ekonomikoa ere.

Talde sortuberrien kasuan, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzearen salbuespenak aztertuko dira jarraian adierazitako bi kasuren batean:

- a. Ikertalde sortuberriak edo osatzekotan direnak, baldin eta bere sail edo arlo tematikoan ikertalde finko aitorturik ez badago edo ikerkuntza tradizio baxuko arloetakoak badira.
- b. Ikertzaile nagusi gisa proposatutako pertsonak dituzten eta UPV/EHUko EUSeko Ikertalde Finkatueterako aurretiazko laguntzak jaso ez dituzten taldeak; gainera,

gutxienez taldeko kide izango diren pertsonen erdiak ez du aipatutako deialdiren batean aitortutako taldeen proposamenetan parte hartu behar izanen.

Bi egoera horietako batean egon eta laguntza lortu nahi duten ikertaldeen idazkia bidali beharko diote IAera (vrinvestigacion@ehu.eus;), eskaera egiten duen ikertzaile nagusiak sinatuta, ikertaldea nortzuk osatuko duten eta zeintzuk ikerketa ildo proposatuko dituen. Hala eskatuko balitzaio, eskaera koordinatuko duen arduradunak behar besteko azalpen eta informazio agertu beharko du aurreko baldintza hauek egiaztatzeko.

- 2.3. Gutxieneko taldea hiru ikertzaile doktorek osatu beharko dute, horietako bi 3.1.a edo 3.1.b oinarrietan jasotako kidegoetakoak izango dira eta horietako batek taldeko ikertzaile nagusi moduan eskaera koordinatzeko ardura izango du. Taldean gutxienez hiru pertsona egon beharko dira eta UPV/EHUrekin kontratua edo lotura izan beharko dute laguntza jasotzen den epe osoan zehar.
- 2.4. Taldeek izan ahal izango dute ikertzaile nagusi kide bat, lehenengoa egon ez eta ikertzaile nagusi arituko dena, betiere 3.2. oinarrian eskaturiko baldintzak beteta.

3. OINARRIA.- IKERTALDEAK OSATZEN DITUZTEN PERTSONEN BALDINTZAK

3.1. Honako kide hauek osatuko ikertaldeak lehiatuko ahal dira laguntza hauetan:

- a. UPV/EHUri lotutako lan kontratudun pertsonala edo funtzionarioak, ikertzaile iraunkorrak izan ezik.
- b. UPV/EHUrekin lotutako lan kontratudunak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUn Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsonala, Ikerbasque programari atxikitako pertsonala, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsonal doktorea, irakasle atxikiak eta lehenago atxiki izandako bitarteko lan kontratudunak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero.
- c. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia eta teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten ikertzaileak eta "obra/zerbitzu" edo "proiektu zehatza" izeneko modalitateen bidez kontratatutako ikertzaile kontratatuak (IK).

Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendariak egon behar du eskaeraren barruan. Era berean, IK doktorearen kasuan, zuzendari zientifikoa edo kontratuaren arduraduna eskaeran agertu beharko da.

- d. Atxikitako irakasle doktoreak eta langile laguntzaile akademikoak, unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera.

Taldeari laguntza ekonomikoa ematekotan, kolektibo horiek ez dira sartuko ezarritako zenbatekoa kalkulatzeko.

3.2. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte ikertzaile nagusiek:

- i. Doktorea izatea.
- ii. Arduraldi osoa izatea. Salbuespenez, arduraldi osokoa izateko baldintza bazterrean utzi ahal da IGBBren txosten arrazoitua tartean dela, ikertzailearen garrantzia zientifikoari begiraturik.
- iii. Ikertzaile partaideak 3.1.a edo 3.1.b oinarrietan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.
- iv. Gutxienez ikertzaile nagusietako batek kontraturen bat izan beharko du UPV/EHUrekin eta proiektuaren erakunde kudeaketarekin lotutako funtzioak bere gain hartu beharko ditu (UPV/EHUREN izenean sinatzea, organikoak kudeatzea, etab.).

3.3. Inork ezin izango du:

- a. Aldi berean deialdi honetako ikertalde batean baino gehiagotan parte hartu. Aldi berean parte hartzeak bi ikertaldeak utziko ditu kanpoan.EUSeko Ikertalde Finkatuetarako 2021eko deialdian aurkeztuko den talde baten parte izatea.
- b. Ikerketa proiektu aktibo batean baja eskatu, aurreko puntuetan aipatutako ikerkuntza laguntzeko deialdietarako eskaerak aurkezteko epean, deialdi honetan parte hartzeko asmoz.

3.4. 2019 edo 2020ko UPV/EHUko "Taldeetarako laguntzak" izeneko modalitatean finantzaketa jasotzen duen talde batek deialdi honetan finantzaketa jasotzen badu, 2021eko erabakiaren datan indarrean dagoen laguntza kenduko zaio. Horrez gain, taldea osatzen duten pertsonetako batzuek dirulaguntza honetan finantzaketa jasotzen badute eta 2019 edo 2020ko UPV/EHUko "Taldeetarako laguntzak" deialdietan finantzaketa jasotzen badute, horiek orain dauden taldetik atera beharko dira berriari sartzeko. Gainera, dagokion taldean gastatu gabeko finantzaketaren zati alikuota kenduko zaio taldetik ateratzen den pertsonari.

3.5. Ezingo dituzte eskatu deialdi honek araututako laguntzak egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- a. Epai irmoz kondenatuta daudenek dirulaguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- b. Zorrak badituzte UPV/EHUK ematen dituen dirulaguntzak itzultzeko dauden betebeharrak direla eta.
- c. Ebazpen irmo bidez zigortuta daudenek, lege honen edo beste lege batzuen arabera, dirulaguntzak ez jasotzera.

3.6. Eskaera ez onartutzat emango da ikertzaile nagusiak aurreko baldintzak betetzen ez baldin baditu.

3.7. Aurreko baldintzak betetzen ez dituen ikertzaile nagusi kideak edo ikertaldeko kideak eskaeratik kanpo geratuko da.

4. OINARRIA.- LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

4.1. Laguntza hauen helburua da ikertaldeen oinarrizko funtzionamenduaren gastuak estaltzea, hau guztia UPV/EHUtik kanpoko erakundeetatik ikerketa jarduna burutzeko lortuko duten finantzaketaren osagarri.

4.2. Laguntzak lau urtetarako programatutako ikerketa jarduerara egongo dira bideratuta eta Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean eta Europa 2030 estrategian diseinatutako estrategien ildo berekoak izan beharko dira. Izan ere, horietan garatu beharreko ikerketa ildoak adierazten dira, baita produktibitate konpromisoa eta sortzen diren beharrak estaltzeko dirulaguntzen plana ere.

4.3. Laguntzen kopuru eta zenbatekoak IGBBren proposamenarekin bat etorrira zehaztuko dira, egindako kopuruaren arabera, aurkeztutako aurrekontuak eta ikertaldeen balioespena ikusita. Taldea ezabatu edo laguntzari uko egitean, finantzatutako epea amaitu baino lehen, kontsumitu ez den laguntza kenduko zaio eta taldeari laguntza emateko erabakian jasotako ondorengo urtetarako emakidak ezabatuko dira.

5. OINARRIA.- LAGUNTZEN IZAERA

5.1. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileak kontratatuzko laguntzak edo beste deialdi batzuetatik etorritako pertsonala elkar finantzatzekoak. Kontratuak egiteko, langileak kontratatuzko UPV/EHUK duen araubidea aplikatuko da. Ez dira hautagarriak izango administrazio lanak egiteko langileak kontratatuzko gastuak.
- b. Ohiko azpiegitura zientifikoa UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez

bakarrik erosi ahal izango da. Horrela egin ezean, hau da, erosketa egiteko ez bazaio UPV/EHUk ezarritako prozedurari jarraitu, taldeari laguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio, hain zuzen ere, erosketa horren zenbatekoa. Ekipamendu informatikoa erostea hautagarria izango da soilik ikerketaren xedeetarako beharrezkoak diren beste edozein ekipamenduren lagungarri izateko garrantzitsuak direla justifikatzen denean.

- c. Material suntsikorra.
- d. Ikerketaren jarduerarekin zuzenean lotuta dauden bidaiak eta dietak, barne hartuta edozein motatako joan-etorrietako gastuak, biltzarretako parte hartzeak (eta izen ematearen gastuak) eta beste zentro batzuetan egindako egonaldi laburrak.
- e. Azpikontratazio gastuak deialdian diruz laguntzen diren ekintzetarako. Hau, gehienez, emandakoaren % 25a ahal izango da, hala ere, behar bezala justifikatutako kasuetan eta aurretiaz motibatutako eskaera aurkeztuta zenbateko hori gehitu ahal izango da.
- f. Beste gastu batzuk, aurreko atalean zehaztutako gastuetan sartzen ez direnak, baina behar bezala egiaztatuta daudenak. Atal honetan sartu ahal izango dira: ekipamendu zientifikoa konpontzeko eta egoera onean izateko egindako gastuak, UPV/EHUren Zerbitzu Nagusiek egindako mantentze kontratuetan jasota ez badaude.
- g. Egin beharreko gastua ez bada aurreko ataletan zehaztutakoa, baimena eskatu ahal izango zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari, hark ebaluatu dezan.

5.2. Laguntza indarrean egongo den azken 6 hilabeteetan azpiegitura zientifikoa erostea eta langileak kontratatzea soilik IAEari eskatu eta horrek berariaz onartu ondoren egin beharko da.

5.3. Ikertaldearen gastutzat hartuko diren gastu bakarrak izango dira 4. oinarrian finantzaketarako zehaztutako epearen barruan egindakoak, hau da: epe horren barruan benetan ere gauzatutako erosketa, bidaiak, lan eta abarrek eragindakoak.

5.4. 5.1 eta 5.2 ataleko e letran adierazitako baimen eskaera Ikerketako Gestiorako Zuzendaritzari egin beharko zaio. Eskaera horretan hori justifikatzen duten arrazoiak behar bezala adieraziko dira.

6. OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA

6.1. Ikertalde bakoitzak bide telematikoaz bete beharko du eskaera osatzeko inprimakia honako aplikazio hau erabiliz:

<http://www.ikerketa-taldeak.net>

Horretarako, ikertaldeko ikertzaile nagusiak alta eskatu beharko du erabiltzaile gisa eta aipatutako aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete beharko ditu. EUSeko Ikertalde Finkatueterako laguntzen aurretiazko deialdi batean akreditatutako talde baten kasuan edo UPG/EHUko taldeetarako laguntzen deialdien kasuan, ikertzaile nagusiak deialdi horretan aurkeztutako eskaeran emandako informazioa berreskuratu ahal izango du.

6.2. Ikertzaile nagusiek zein bere ikertaldeari buruzko informazioa jarriko du aplikazioan.

a) Eskaeraren datuak:

- Ikertzaile nagusien datuak.
- Ikertaldearen datu orokorrak eta osaera.
- Taldearen jarduera zientifikoaren memoria 2016tik laguntza eskatzen den datara arte. Bertan honako hau jaso beharko da: ekoizpen zientifikoa, prestakuntza gaitasuna, ikerketarako lortutako finantzaketa eta ezagutza transferitzeko jarduerak.
- Jarduera programa, helburuak, lan plana, laguntzaren burutze epe zabalena (2022-2025) ezinbestean hartu beharko duena, honetarako kronograma eta mugarri nagusiak. Ikertaldearen helburuak, ekoizpen zientifikoari, prestakuntzari, transferentziari eta finantza iturriei dagokienez, kuantifikatu beharko dira, laguntzaren helburuko epe

osoan zehar erdietsi beharreko adierazleak erabiliz.

- 2022-2025 eperako eskatutako aurrekontua. 5. oinarrian adierazitako diruz lagundu daitekeen kontzeptu bakoitzean eskatutako zenbatekoak esleitu beharko dira. Era berean, zenbateko horiek zertarako erabiliko diren zehatz-mehatz deskribatu beharko da.

b) Ikertzaile nagusien curriculum laburra, PDF formatuan, unibertsitate edo ikerkuntza gaietako eskumenik duen edozein administrazioren formatu arautuan aurkeztu beharrekoa.

Ikertaldeko ekarpen zientifiko nagusiak ikertaldearen jarduera zientifikoaren memorian jasoko dira eskaera egiteko inprimakian. Ikerketaren arloko errektoreordetzak ikertaldeko edozein kideri eskatu ahal izango dio informazio gehigarria.

6.3. Behin eskaera oso-osorik bete eta gero eta datu guztien agerpena amaituta, eskaera inprimatu beharko da eta ikertaldeko ikertzaile nagusiak eta ikertaldeko kide guztiek sinatu, 14. oinarrian adierazi bezala.

7. OINARRIA.- ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Deialdiaren helburuarekin bat etorrira, ebaluazio prozesuak jarraian adierazitako irizpideak bete beharko ditu.

Irizpide bakoitzak zehaztuta dauka ebaluazio osoarekiko duen pisua.

Eskatzaileak eskaeran adierazitako ekarpenen kalitate adierazleak aurkeztu beharko ditu (aldizkariak bere ikerketa eremuan duen inpaktua, kokapena, kuartila, eta abar).

7.1. Ikertaldearen irizpide eta adierazleak

1. irizpidea: Ikerketa zientifikoaren kalitatea. 2016-2021 epea. Ekoizpen zientifikoaren eta produktibitatearen bikaintasuna balioetsiko da ikertaldearen tamaina eta lortutako baliabideen arabera. Aintzat hartuko dira argitalpenak (liburuak, liburu kapituluak, berrikusketak, ebaluaziodun argitalpen elektronikoak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak), ponentzia zientifikoak edo beste edozein adierazle, norberaren arlo zientifikoan garrantzitsua bada. Argitalpenak balioesteko arlo zientifiko bakoitzean diren zerrenda eta ranking zientifikoak eta aipuetarako adierazleak erabiliko dira, ebaluatzerakoan arlo bakoitzaren zer-nolakoak aintzat izan behar direlarik.

Irizpide honek % 35aren pisua izango du puntuazio osoan.

Talde sortuberriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako proposamenen bat egiten badu, horren irizpidea amaierako puntuazioan % 30 murriztuko da.

2. irizpidea: Ikertaldearen gaitasuna ikertzaileak prestatzeko. 2016-2021 epea. Doktorego aurreko eta doktorego ondoko kontratatuen kopurua, zenbat tesi eta nazioarteko tesi, graduondoko eta master egin diren balioetsiko da, ikertaldeko kideek zuzenduta, edo ikertaldearen ikerketa ildoetara loturik sustatutako zenbat doktorego, bai eta bestelako prestakuntza ekintzak ere (adibidez, master amaierako lanak zuzentzea).

Irizpide honek % 15aren pisua izango du puntuazio osoan.

Talde sortuberriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako proposamenen bat egiten badu, horren irizpidea amaierako puntuazioan % 13 murriztuko da.

3. irizpidea: Finantzaketa eta jakintzaren transferentzia. 2016-2021 epea. Honako hauek baloratuko dira:

- 1) Ikerketa proiektuetarako deialdi lehiakorretan lortutako finantzaketa eta lortutako zenbatekoa, baita sare tematikoetan eta ekintza integratuetan parte hartuz ere; aintzat hartuz, bereziki, proiektuen lidergoa.
- 2) Ikertaldearen ikerketa emaitzak, patenteen eskaerekin eta erabiltzeko ereduarekin neurtuta, bai eta ikerketaren emaitzarekin lotutako spin-off enpresen sorrerarekin ere. Irizpide honen atala da patenteen ustiapen maila.

- 3) Jakintzaren transferentzia helburu, administrazio publiko edo enpresekin sinatutako ikerkuntzarako edo jakintzaren transferentziarako kontratu edo hitzarmenen bidez egindako ekintzak, ikerkuntzaren gestionatzeko unibertsitate, institutu, ikergune eta bestelako gestio bulegoetan tramitatuta.
- 4) Dibulgazio zientifikorako eta ikerketaren gizarte hedapenerako jarduerak, publiko orokorrari zein komunitate zientifikoari bideratutakoak.

Ez dira atal honetan zenbatuko, zeinek bere arloan jakintzaren hobetze nabarmenik ez lekarketen aholkugintzak, arkitektura edo ingeniarietako oinarritzako proiektuak eta beste.

Irizpide honek % 20aren pisua izango du puntuazio osoan.

Talde sortuberriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako proposamenen bat egiten bada, horren irizpidea amaierako puntuazioan % 17 murriztuko da.

6. irizpidea. Irizpide osagarriak. Kontuan hartuko dira:

- 1) Genero oreka: puntu bat emango zaie bi sexuetako kideen ehuneko % 40 edo handiagoa dela egiaztatzen duten taldeei; 0,5 puntu sexuetako bat % 30 edo handiagoa eta % 40 baino txikiagoa dela egiaztatzen dutenei; eta ez da punturik emango atal honetan sexuetako bat % 30 baino txikiagoa denean. Halaber, puntu bat emango da ikertzaile nagusia emakumea bada, eta, bestela, 0,5 puntu ikertzaile nagusietako bat emakumea bada.
- 2) Proposamena Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat etortzea: puntu bat emango zaie 2030 Agendaren GIHetako batekin bat datozela erakusten duten proposamenei.
- 3) Talde sortuberriak sustatzea: 2 puntu emango zaizkie talde sortuberriei, 2.2 oinarriko a eta b ataletan deskribatutako egoeraren batean.

II MODALITATEKO LAGUNTZA: UPV/EHUN FINKATUTAKO IKERTALDEAK

8. OINARRIA.- HELBURUA ETA XEDEA

Modalitate honen xedea da, EUSko ikertalde finkatuentzako laguntzen ildotik, bost arlo hauetan ikerketa programak garatzen dituzten UPV/EHUko ikertaldeek jarduerak babestea: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak eta Arteak eta Giza Zientziak.

Bereziki, deialdiaren modalitate honen helburua da EUSren ikertalde finkatuentzako laguntzak osatzea UPV/EHUko, aintzatetsiak diren baina 2021eko deialdian finantzaketarik lortzen ez duten taldeei dagokienez. Deialdi hori 2021eko irailaren 7ko 2021/4826 Aginduan deskribatu zen, eta 2021eko irailaren 21eko EHAAn argitaratu zen. Horrela, deialdi honetan aurreikusitako finantzaketaren zati bat talde hauek, gutxienez hein batean, UPV/EHUko finantzatzera bideratuko da.

Beraz, deialdiaren modalitate honen helburua da talde bakoitzari proposatzen duen lau urteko jarduerara programa gauzatzeko ematen zaion laguntza ekonomikoa kuantifikatzea eta esleitzea, behin aldeko ebaluazioa lortuta, eta 2021eko EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian talde finkatutzat onartuta, baina finantzaketarik jaso gabe.

Kasu horretan, ikertalde horiek UPV/EHUko ikertalde finkatu gisa hartzen dira.

9. OINARRIA.- IKERTALDEEN ETA HORIEK OSATZEN DITUZTEN PERTSONEN EZAUGARRIAK

9.1. Talde bat deialdiaren modalitate honetara aurkezteko, beharrezkoa da EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdira aurkeztu izana (2021eko irailaren 7ko 2021/4826 Agindua, 2021eko irailaren 21ean EHAAn argitaratua).

9.2. Deialdiaren modalitate honetarako eskaera aurkezten duten ikertaldeek ezaugarriak, bai eta taldeak osatzen dituzten pertsonenak ere, EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian ezarritakoak izango dira (2021eko irailaren 7ko 2021/4826 Agindua, 2021eko irailaren 21ean EHAAn argitaratua). Horrela, deialdiaren modalitate honetara eskaera aurkezten duten ikertaldeek osaera EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian aurkeztutakoa izango da.

Ikertaldea osatzen duten pertsonen betekizunei dagokienez, honako hauek izango dira salbuespen bakarrak:

- a. Taldekide guztiak UPV/EHUkoak izango dira, deialdiaren 3.1 oinarrian ezarritako baldintzak betez. Deialdi honetan ezarritako eskaera epea hasten den egunean, 3.1. oinarrian jasota ez dauden langileak sartzen badira EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian, pertsona horiek taldekide gisa ezabatuko dira deialdi honen ondorioetarako.
- b. Taldeko ikertzaile nagusi gisa jarduten duen pertsonetako batek, gutxienez, deialdiaren 3.2 oinarriko baldintzak bete beharko ditu. EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdirako eskaerak ez badu baldintza hori betetzen, talde horrek ezin izango du deialdi honetan parte hartu, eta baldintza horiek betetzen dituen beste kide batek ezingo du ikertzaile nagusia ordezkatu.
- c. Horrez gain, EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian aurkeztutako eskaeran agertzen diren pertsonen gain, deialdi horretan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eta deialdi honetako 3.1 oinarriak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten beste pertsona batzuk ere sartu ahal izango dira eskaeran.

9.3. Gainera, inork ezingo du:

- a. Aldi berean deialdi honetako ikertalde batean baino gehiagotan parte hartu. Aldi

berean parte hartzeak bi ikertaldeak utziko ditu kanpoan.

- b. UPV/EHUren 2019ko eta 2020ko deialdietako "Taldeetarako dirulaguntzak" modalitateko finantziatorik daukan talde batean parte hartu. Kasu horretan, deialdi honetan finantzazioa lortzen duen talde bat osatzen duten pertsona batzuk UPV/EHUren 2019ko eta 2020ko deialdietako "Taldeetarako dirulaguntzak" modalitatean finantzaturako talde batekoak baziren, pertsona horiek talde horretatik atera beharko dute talde berrian sartzeko, eta, gainera, kontsumitu ez den finantzaketaren zati alikuota kenduko zaio taldetik ateratzen den pertsonari.

9.4 Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu deialdiaren 3.5. oinarrian deskribatutako egoeraren batean dauden pertsonak.

10. OINARRIA.- LAGUNTZEN EZAUGARRIAK ETA IZAERA

Laguntzen ezaugarriak eta izaera deialdi honetako I. modalitaterako 4. oinarrian eta 5. oinarrian, hurrenez hurren, deskribatutakoak izango dira.

11. OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak egiteko, 14. oinarrian ezarritako epean, IAEren webgunean eskuragarri egongo den eskaera inprimakia aurkeztu beharko da. Bertan, honako hauek jasoko dira: pertsonaren IP identifikazioa, Eusko Jaurlaritzako taldeen aplikazioak sortutako IT kodea eta Eusko Jaurlaritzaren deialdian aurkeztutako eskaeran agertzen ziren pertsona osagarriak.

12. OINARRIA.- ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Talde bat deialdiaren modalitate honetara aurkezteko EUSeko 2021eko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdira aurkeztu izana beharrezkoa denez, ebaluazio irizpideak Eusko Jaurlaritzaren deialdian ezarritakoak izango dira, eta deialdi horretan egindako ebaluazioaren emaitza onartuko da.

BI MODALITATEEN APLIKAZIO OROKORREKO OINARRIAK

13. OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskariak aurkezteko epeak 30 egun natural izango ditu, honako deialdi hau Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzaren web gunean argitaratuko denetik kontatzen hasita.

14. OINARRIA.- ESKARIAK EGITEKO ERA

14.1. I. modalitateko eskaeratarako, eskaerak 6.3. oinarrian aipatzen den inprimakiaren bidez egingo dira.

II. modalitateko eskaeratarako, eskaerak 11. oinarrian aipatzen den inprimakiaren bidez egingo dira.

Bi kasuetan, eskaerak UPV/EHUko IAeri zuzenduta egongo dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/es/registro-electronico>. Bertan, eskaeraren "Xedean", lehenik eta behin, "Ikerketako Errektoreordetza" aukeratu behar da, eta, bigarrenik, "Deialdien Ikerketaren Kudeaketa (U02000256)", "Eskatzen du" atalean honako hau zehaztuta: "EHU taldeak 2021". Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

14.2 Eskatzaileak agiriak UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialetako batean edo ingelesez aurkez ditzake.

Ahal bada, ebaluazioa eskaera egiten den hizkuntzan egingo da. Gai horretan adituak diren eta hizkuntza hori ezagutzen duten ebaluatzaileak ez dagoelako ebaluazioak ezin badira euskaraz egin, IAEk eskatuko du euskaraz aurkeztutako eskaerak gaztelaniara itzultzea. Dagokion itzulpena jaso ostean, posta elektronikoaren bidez bidaliko zaio ikertzaile nagusiar, eskabidean adierazitako helbide elektronikora. Bost egunen epea izango du itzulpena birpasatu eta adostasuna agertzeko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztagiria. Adierazitako epea igaro ostean, erantzunik ez badago, ikertzaile nagusia itzulpenarekin ados dagoela ulertuko da.

15. OINARRIA.- LAGUNTZAK KUDEATUKO DITUZTEN ORGANOAK

IAEk, Ikerketako Gestiorako Zuzendaritzaren bidez, kudeatuko ditu deialdi honetan zehaztutako laguntzak.

16. OINARRIA.- ESKAERAK BIDERATU ETA EBALUATZEA

16.1. I. modalitaterako eskaerak

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketako Gestiorako Zuzendaritzak aztertu egin zituen aurkeztutako eskaerak.

Azterketa hori amaitu ostean, IAEk ebaluazio-fasera igarotzeko onartutako eta baztertutako eskaeren zerrenda argitaratuko du bere webgunean, eta 10 egun balioduneko epea emango die interesdunei eskaera osatu edo zuzentzeko, bai eta egoki iritzitako alegazioak aurkezteko ere.

Okerrren zuzenketak eta alegazioak eskaerak aurkezteko 14. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilia aurkeztu beharko dira.

Emandako dokumentazioa berrikusi eta gero, IAEren webgunean argitaratuko da eskari onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda. Bertan behera utzitzat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskaerak.

Okerrak zuzentzeko prozesua amaitu eta gero, ikertzaile nagusiak azken txostena eskuratu ahal izango du aplikazioaren bidez, non jasoko baitira ikertaldeak akreditatutako merezimendu guztiak, eskaeren inguruan egin beharreko ebaluazioaren oinarri izango baitira.

7. oinarrian deskribatu diren ebaluazio irizpideen kanpoko ebaluazio agentzia baten bidez egin ahal da. Agentzia hori UNIBASQ - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Ikerketako Estatu Agentzia, Ebaluazio eta Koordinazioko Azpiatala (lehengo ANEP) edo antzeko ezaugarriak dituen beste agentzia bat izan daiteke. Fase horrek, gutxienez, hiru hilabeteko iraupena izango du.

16.2. II. modalitaterako eskabideetan

Kasu horretan, Eusko Jaurlaritzak EUSeko ikertaldeentzat ematen dituen laguntzen ebazpena argitaratu eta hamabost egun naturaleko epean hasiko da eskabideak izapidetzeko eta ebaluatzeko prozedura; eta deialdi horretan Eusko Jaurlaritzaren finantzaziorik lortzen ez duten taldeentzat soilik egingo da.

IAEko Ikerketako Gestiorako Zuzendaritzak 2021eko EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian aurkeztutako eskabidean dagoen taldearen osaera berrikusiko du, baita deialdi honen ondorioetarako taldean sartu nahi diren pertsona gehigarriak ere, 9. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Azterketa hori amaitzean, onartutako eta baztertutako eskabideen zerrenda argitaratuko du IAEk bere webgunean, eta bertan zehaztuko dira taldearen osaeran onetsitako aldaketak, deialdi honen ondorioetarako, 9. oinarrian deskribatutako baldintzak betez, halakorik balego. Ikertzaile nagusiek hamar egun balioduneko epea izango dute egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko, eta, horretarako 14. oinarrian azaldutako bitarteko berberak erabili ahal izango dituzte eskabideak aurkezteko.

Aurkeztutako alegazioak berrikusi eta gero, behin betiko onartu eta baztertutako zerrenda argitaratuko da IAEren webgunean.

2021eko EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian egindako ebaluazioaren emaitza onartuko da. Nolanahi ere, deialdi honen ondorioetarako, deialdi horretan lortutako ebaluazioaren emaitza bat etorriko da 2021eko EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian parte hartu duten taldeko kideen kopuruarekin, baldin eta eskabide honetan ere jarraitzen badute, hau da, deialdiaren 9.2 oinarrian ezarritakoa betetzen badute.

16.3. Bi modalitateetako eskabideetarako egindako ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, eta errektoreordeak behin-behineko ebazpena eman eta argitaratuko du.

16.4. **Kalitate adierazleak eta emaitzen ebaluazioa.** IGBBk kalitate adierazleak eta emaitzen ebaluazioa ezarriko ditu laguntza gauzatzeko dagozkien epeetan, eskabidean adierazitakoaren arabera, eta ekoizpen zientifikoari, prestakuntza gaitasunari, langileak erakartzeari eta funtsak lortzeari buruzko adierazle sorta zehaztuko du.

Kopuruak zehazteko, Batzordeak taldeak berak datozen lau urteetarako diseinatu duen jarduera planean jasotako adierazleak izango ditu abiapuntu, baita aurreko urteetan erakutsitako potentziala eta deialdi honen ebazpenean jasotako finantzaketa ere. IGBBk, hala badagokio, txostenak eskatu ahal izango dizkie taldearen espezializazio arloan ospe handia eta ebaluazio esperientzia duten ikertzaileei.

Adierazle horiek laguntza onartzeko dokumentuan sartuko dira, eta 19. oinarrian ezarritako txosten teknikoan ebaluazioan erabiliko dira, deialdi honetan bi modalitateetan ikertaldean jardueraren jarraipenari buruzkoan.

17. OINARRIA. EBAZPENA

17.1. IGBBk behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IA Eren webgunean argitaratuko dena, eskabide guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Ikertzaile nagusiek eskabidea egiteko baliatutako aplikazioaren bidez eskuratu ahal izango dute ebaluazio txostena.

Horrez gain, finantzaketa proposatzen zaien taldeetako ikertzaile nagusiek banakako ebazpen proposamena jasoko dute posta elektronikoki bidez, eskabidean adierazitako posta-kontuan. Proposamen horrek honako hauek jasoko ditu:

- a. Talde eskatzailearen identifikazioa.
- b. Esleitutako guztizko kopurua eta kontzeptuen eta urtekoen arabeko xehetasunak.
- c. Kalitate adierazleak eta emaitzen ebaluazioa.

17.2. Ikertzaile nagusiek 10 egun baliouduneko epea izango dute, gehienez ere, egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkezteko, behin-behineko ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Finantzaketa proposatzen zaien taldeei dagokienez, epe hori zenbatzeko, aurreko paragrafoan aipatzen den banakako ebazpen proposamena jasotzen duen posta elektronikoa entregatu izanaren egiaztatzea hartuko da kontuan. Aipatu epean alegaziorik edo ukorik jaso ezean, proposamena onartutzat joko da eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

Alegazioak 14. oinarrian eskabideak aurkezteko deskribatutako bide berberak erabiliz aurkeztu ahal izango dira.

17.3. IAEk IGBBri helaraziko dizkio aurkeztutako alegazioak, bertan azter daitezzen eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Talde berriren baterako finantzaketa proposatzen bada, behin-behineko ebazpenean jasotakoei dagokienez, 17.1.etik 17.3.ra bitarteko oinarrietan adierazitako moduan jokatuko da banakako ebazpen proposamen berriari dagokionez: ikertzaile nagusiei posta elektronikoki bidez helaraztea, 10 egun baliouduneko alegazio epea irekitzea eta, hala badagokio, IGBBk ebazpen proposamena gitea.

17.4. Aurreko izapideak beteta, laguntza emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpena IA Eren webgunean argitaratuko da, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balioko du.

17.5. Administrazio bidea agortzen duen behin betiko ebazpenaren aurka, aurkaratzeko bide hauek erabili daitezke, eta inola ere aldi berean:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, aukerako berraztertze errekurtsua ezetsizat jo eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

18. OINARRIA.- LAGUNTZA ESKURATZEKO BALDINTZAK

Deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratu ondoren, esleitutako laguntzen benetako zuzkidura egiteko, laguntza onartzeko agiria jaso behar da IAEko Ikerketako Gestiorako Zuzendaritzan, taldeko ikertzaile nagusiak sinatuta. Dokumentu horretan, Zuzendaritza horrek helaraziko dio, IGBBk onetsitako finantzaketa baldintzak eta kalitate adierazleak eta emaitzen ebaluazioa jasoko dira.

Taldeei emandako laguntzaren zuzkidura urtero egingo da, hargatik eragotzi gabe erabili gabeko zatia hurrengo urteko urterokora igarotzea, urte horretakoari gehituta, laguntzaren indarraldiko azken urtean izan ezik, urte horretan laguntzaren amaieran erabili ez den zatia osorik kenduko da, hargatik eragotzi gabe 5.2. oinarrian adierazitako aplikatzea, langileak kontratatzeke edo ekipamendua erosteko gastuari buruzkoa.

19. OINARRIA.- JARRAIPENA

19.1.- IAEk dirulaguntza jaso duten eskabideei jarraipena egiteko prozedura antolatuko du.

19.2.- **Urteko txostena.** Finantzaketa lortzen duten taldeek, hurrengo urteko hiruhilekoa amaitu baino lehen, ekoizpen zientifikoari buruzko urteko datuak eguneratu beharko dituzte <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioan. Horretarako, IAEk alde aurretik UPV/EHUko taldeen datu-basean kargatutako adierazleei buruzko informazioa erabiliko da.

19.3.- **Azken txostena.** Jarduerak bukatu eta hurrengo hiruhilekoan, lortutako emaitzak <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioaren bidez sortutako azken txosten batean adierazi beharko dira, eta ikertzaile nagusiak sinatu beharko du.

19.4.- **Azken ebaluazioa.** Azken txostena entregatu ondoren, emaitzen ebaluazioa egingo da, ikertaldearentzat ezarritako urteko adierazleen betetze mailan oinarrituta.

19.5. Modu deszentralizatuan egin diren gastuen kasuan, jatorrizko fakturak gorde beharko dira ikertaldeko ikertzaile nagusiari dagokion sailean edo institutuan, eta eskuragarri egon beharko dute deialdi honen kargura emandako laguntzen inguruan honako organoek, beren eskumenen babesean, egin ditzaketan egiaztapenentarako: IEAk, UPV/EHUko barne kontrolerako zerbitzuak, kontrol ekonomikoko bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

20. OINARRIA.- EMAITZEN BERRI EMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA

20.1.- Ikerketaren ondorioz lortutako emaitza guztietan, izan argitalpenak, izan patenteak, izan prototipoak edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak) UPV/EHUren filiazioa sartu beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

20.2. Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantzazioa eman duten erakundeen zerrenda, eta deialdi hau berariaz aipatu beharko da.

20.3. Ikertaldearen jardueren bidez lortutako emaitzak jabetza intelektualaren edo industrialaren arloko tituluren baten bidez babestuta egon badaitezke, UPV/EHUko Jabetza Intelektual eta Industrialaren Erregimenari buruzko Arautegia aplikatu beharko da.

20.4. Ahal den bezain laster, baina inola ere, argitalpenaren data ofizialetik hamabi hilabete igaro eta gero, argitara eman beharko da ADDI erakunde gordailuan ikertaldeko ikerketaren emaitza izan eta ikerkuntza argitalpen seriatu edo aldizkakoetan argitaratzeko onartu diren lan eta edukien azken bertsioaren bertsio digital bat. Nolanahi ere, gomendatzen da ADDIn argitaratzea ikertaldearen ondoriozko edozein emaitza.

21. OINARRIA.- LAGUNTZA ESKURATZEKO OINARRI IZANDAKO BALDINTZAK ALDATZEA

21.1. Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat edo beste aldatuko balitz, betiere deialdiaren helburua bete egin dela ziurtatuta, edota beste erakunde publiko edo pribaturen batek bestelako subentziorik edo laguntzarik emango balio taldeari, horrek laguntzak esleitzeko erabakia aldatzea eta dagokion kitapena ekar lezake.

Kasu horretan, ebazpena abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. artikuluan (EHAA, 1992ko otsailaren 7koa), Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra araututa, zehaztutako administrazio prozedurari jarraituz burutuko da, IGBBk proposatuta edo alde zuzenetik txostena eginda, eta taldeko ikertzaile nagusiari banaka jakinaraziko zaio.

21.2.- Ondorio horietarako, ulertuko da laguntza emateko oinarri izandako baldintzak aldatu egin direla, besteak beste, honelako kasuetan:

- a. Ikertaldeak uko egitea bere jarduerari, talde barruko lankidetzak harremanak bertan behera uztea edo egiatan apurtzea, ikertzaile nagusia UPV/EHUkoa ez den beste erakunde batera joatea, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joatea, eta horren eraginez taldearen zuzendaritza edo aurreikusitako emaitzen lorpena arriskuan egotea.
- b. Ikertaldeak egindako jarduerak bat ez etortzea proposatutako helburu eta epeekin, horretarako IA Eren baimenik eduki gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskabidean datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatuzea.
- e. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdien barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUK kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.

22. OINARRIA.- TALDEAREN OSAERA ALDATZEA

22.1.- Taldean aldaketarik egin nahi izanez gero, eskaria egin behar zaio IA Eri, aldaketa onar edo ezeztatu dezan. Ez da taldeko bazarik onartuko, ez bada ezinbesteko kasuren batengatik. En

su caso, podría modificarse la dotación presupuestaria del grupo, retirando la parte alícuota de la financiación no gastada del grupo, correspondiente a la persona que sale del mismo.

Ikertzaile nagusiak jakinarazi beharko dio IAERI, laguntzak dirauen bitartean, ikertaldeko zein kidek amaitzen duten UPV/EHUrekiko lotura.

22.2.- Taldean egindako aldaketak, kide berrien altak edo bajak, IAEEK baimena ematen duen unetik aurre izango ditu ondorioak.

22.3. Taldeko kide kopurua murriztearen ondorioz gerta daiteke finantziarioa eguneratzea edo taldea banantzea.

23. OINARRIA.- LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, dirulaguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko xedapenei.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

24. OINARRIA.- JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIBIOAK

24.1.- Deialdi honetarako proposatu diren jardueretan gizakirik, gizakien lagin biologikorik edo pertsonen datu pertsonalak erabiliko badira, honakoak bete beharko dituzte:

- Adierazpenetan ezarritako eta jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio adierazpena, 2004).
- Indarrean dagoen araudia betetzea: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 ED, biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena. Bai eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUko Arautegia ere.
- Gizakiekin lotutako (haren datuak eta laginak) Ikerketarako Batzorde Etikoaren (GIEB) aldeko txostena lortzea, aldeztatik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen moduan (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.).

24.2.- Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatzea.
- Animaliekin ikertzearen arloan indarrean dagoen araudia betetzea (53/2013 ED).
- Animaliekiko Esperimentaziorako Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aldeko txostena lortzea, aldeztatik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen moduan (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.). Agintari eskudunaren baimena agertzea (foru diputazioen abeltzaintza saila).

24.3.- Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko prebentzio, zuhertasun eta informazio printzipio etikoak errespetatzea.
- Arlo horretako indarrean dagoen araudia betetzea (31/1995 Legea, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997, langileak eragile kartzinogenoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzeari buruzkoa).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin eginiko ikerketetarako Etika Batzordearen (CEIAB) aldeko txostena lortzea, alde zuzenik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen moduan (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

24.4.- Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarrizko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (2011ko abenduaren 2koa, ostirala, EBO; 290. zk.).

24.5.- Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Hala izanik ere, aukerako berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango da Ikerketaren arloko Errektoreordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 legearen 123. artikuluaekin bat etorruta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2021eko abenduaren 29an.

Inmaculada Arostegui
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación